



EKONOMIA –ESPAZIOA

LUR-1 euskal satelitearekin konektatu du AVSk

Bart Space X konpainiaren Falcon 9 koheteen espazioratu ostean, 12:39an Euskal Herrian osorik garatutako satelitearekin bat egin du Added Value Solutions (AVS) Arabako konpainiak.



LUR-1 euskal satelitearekin konektatu du AVSk

EITB MEDIA

publikatuta: 2024/08/17 13:10 (UTC+2)

AVS (Added Value Solutions) Arabako konpainiak bart jaurtitako LUR-1 euskal satelitearekin konektatu du, bigarren saiakeran.


Arkaitz Larman ingeniariak EITBri esan dionez, espero zuten unean konektatu dira, gauerdian Euskal Herrian osorik diseinatu eta garatu den satelitearekin konektatzeko egin duten lehen ahaleginak huts egin ondoren.

"Bagenekien orain arteko dena ondo eginda zegoela, eta denbora kontua zen", azaldu du Larmanek. Lehendabiziko urrats hori beteta, orain arteko guztia espero bezala etorri da, AVSko kideen arabera.

Atzo kohetearen jaurtiketa atzeratu zutenez, kalkuluak egin behar izan dituzte berriro satelitearekin harremanetan jartzeko. Ohikoa omen da lehenengo ahaleginean konexioa ez ezartzea, eta kasu batzuetan bi aste ere behar izaten omen dira lortzeko.

Espaziorako bidaia gauzatzeko, Elon Musk enpresaburuaren **Space X** konpainiaren **Falcon 9** kohetean espazioratu dute bart satelitea, Ameriketako Estatu Batuetako Indar Espazialak **Vandenberg (Kalifornia)** duen basetik.

Jaurti eta minutu batzuetara, kohetea eta satelitea banandu dira, eta Lurraren gainazaletik 515 kilometro inguruko distantziara orbitatzen ari da jada.



LUR-1 satelitea, lehen euskal satelitea, espazioan dago

LUR-1 satelitea **57 kiloko mikrosatelitea** da, eta hainbat bandatako antenak (UHF, S eta X), beso zabalgarri bat eta eguzki-panelak ditu. Mila lanegun baino gehiago eta 8 milioi euro inbertitu dira diseinatzeko eta fabrikatzeko prozesuan, horien **% 40 funts publikoen bidez** bildutakoak.

Sateliteak **segundoko 7 kilometroko abiaduran** orbitatuko du Lurraren inguruan, eta bost urtez funtzionatuko omen du. Ondoren, bere orbita espazialek aterako da, atmosferan berriz sartzeko, eta bertan desegingo da.

Bereizmen handiko irudiak eta jasangarritasuna

Teknologia hori guztia Lurraren bereizmen handiko irudiak hartzeko erabiliko dute, nahiz eta hasiera batean misioaren arreta Euskal Herriko geografian jarri, itsasertzaren bilakaera aztertzeke, izurriteen eta ibaien kontrolak aztertzeke eta laboreen banaketa kudeatzeko, besteak beste.

LUR-1 sateliteak **MICE** gailua darama, Arabako konpainiak ESArentzat (Europako Espazio Agentzia) garatutakoa.

Copernicus programaren satelite guztietan instalatuko dute, desorbitazioa prestatzeko, funtzionatzeari uzten badiote edo balio-bizitzaren amaieran erabiltzeko. Teknologia horrek espazioan zaborrik ez uzteko aukera ematen du, espazio jasangarriagoa lortze aldera.

Espazio sektoreak 800 milioi euro inguru sortzen ditu urtero Euskal Autonomia Erkidegoan, 5.000 profesional ingururi ematen die lana, eta EAEko BPGren % 5,7 da.

<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/ekonomia/osoa/9563261/lur1-euskal-satelitearekin-konexioa-ezarri-du-avsk>

Irakurritakoa kontuan harturik, idatz ezazu 25-30 lerroko testu bat. Testuak, gutxienez, 200 hitz izan behar ditu. Aukeratu bi gai hauetako bat eta zure iritzia adierazi. (10 puntu)

- A. Sateliteak beharrezkoak dira gure bizimoduari eusteko, komunikaziorako garrantzi handia dute, ikerketarako beharrezkoak dira... Baina, gero eta satelite gehiago ditugu Lurraren orbitan eta zabor bihurtzen dira bere funtzioa amaitzen dutenean. Zer egin daiteke arazo hori konpontzeko? Sateliteak erabiltzeari utzi beharko genioke? Zein neurri hartu beharko lirakeke?
- B. Munduko biztanle gehienek arazoak dituzte oinarrizko beharrak asetzeko: elikadura, ura, osasun-zerbitzua... Hala ere, gero eta diru gehiago erabiltzen dugu sateliteak Lurraren orbitara bidaltzen eta espazioan bidaiak egiten, bai ikerketarako, bai aisialdirako. Eman zure iritzia egoera horri buruz, eta proposamenak egin desoreka horri irtenbideak bilatzeko.

Gogoratu honako alderdi hauek hartuko direla kontuan testua zuzentzeko eta ebaluatzeko:

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita ote dauden, errepikapenik gabe).
- Perpausen eta paragrafoen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu-antolatzaile eta lokailuei).
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna.

TESTU IDATZIA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Bi txantiloi-eredu proposatzen dira. Bata zein bestea erabil daiteke.

Txantiloia 1: Deskripzio analitikoa

	ADIERAZLEAK	Oso Ondo 0,7-1 ptu.	Ondo 0,5-0,6 ptu.	Gaizki 0,2-0,4 ptu.
Egokitasuna (2 puntu)	1. Testuak hizkuntza-erregistro egokia du. Eskatutako hitz kopuru minimoa du			
	2. Testua ondo egokitzen zaie proposatutako helburuari eta eskatutako testu-generoari.			
	Egokitasuna	(.....puntu)		
Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)	3. Egitura argia eta zehatza du: sarrera du, eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere adierazi du.			
	4. Gaiari lotutako iritziak adierazten ditu. Informazio esanguratsua ematen du.			
	5. Ideiak elkarrekin lotuta daude, eta lokailu eta testu-antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.			
	6. Esaldien ordena egokia da, eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu. Puntuazio-zeinuak ere ondo erabiltzen ditu.			
	Koherentzia eta kohesioa	(.....puntu)		
Lexikoa, sintaxia morfologia eta ortografia	7. Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.			

(4 puntu)	8. Arau morfologikoak betetzen ditu: deklinabidea, aditzaren denbora, aspektua eta komunztadura			
	9. Arau sintaktikoak betetzen ditu. Esaldien egitura zuzena eta egokia da.			
	10. Ortografia-arauak betetzen ditu			
	Lexikoa, sintaxia, morfologia eta ortografia	(.....puntu)		
	GUZTIRA			

Txantiloia 2: Deskripzio sintetikoa

8-10 puntu	- Eskatutakoari lotzen zaio (helburua, gaia, hitz kopurua...) - Erregistro egokia du. - Aukeratutako edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako, ez dago errepikapenik eta gaiak aurrera egiten du - Ideiak eta argudioak ondo garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. - Lokailuak, antolatzailek eta egitura sintaktikoak egokiak eta aberatsak dira - Ez du akats morfologikorik, ezta ortografikorik ere
7-8 puntu	- Eskatutakoari lotzen zaio. Erregistro egokia erabiltzen du. - Ideiak eta argudioak garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. - Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (menpekoak, lokailuak...). - Testuak ez du ia akatsik; baten bat badu, ez da sistematikoa, eta ez du ulermena eragozten.
5-6 puntu	-Zenbait akats sistematiko ditu edukian edo forman. Hala ere, akats horiek ez dute oztopatzen testua ulertzea.

	- Ideien arteko koherentzia eta kohesioan dituen gabeziek ez dute oztopatzen ulertzea. - Argudioak edo ideiak ez daude guztiz garatuak; batzuetan jauziak atzeman daitezke - Egitura sinpleak erabiltzen ditu oro har - Ortografian eta puntuazioan akatsak daude, baina ez oso larriak.
3-4 puntu	- Ez zaio eskatutakoari lotzen. - Ez du hitz kopuru minimoa. - Ulergarritasuna oztopatzen duten ideien arteko jauziak ditu, erreferentzia galtzen da... - Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, horietan ere akatsak atzematen dira. - Gabezia handi samarrak komunikazioari eta hizkuntzaren ezagutzari dagokienez - Ortografian, arruntak diren hitzetan ere akats larriak.
1-2 puntu	- Ez du eskatutakoa bete. - Hitz kopuru minimoa ere ez du bete. - Testua ulergaitz egiten duten akats sistematikoak ditu. - Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, horietan egiten dituen akatsek ulermena eragozten dute. - Nabarmenak dira komunikazio- eta hizkuntza-gabeziak. - Oinarritzko akats gramatikal larriak egiten ditu: ergatiboa, komunztadura, perpaus osagarriak.

EZAGUTZA-ADIERAZLEAK

- 2.7. Eskatutako testu motaren berezko eskemen arabera ideiak antolatu, planifikatu eta informazioa koherentziaz antolatzea.
- 1.5. Miltzo honen berezko idatzizko testu egokiak, koherenteak, ondo lotuak eta zuzenak sortzen ditu.
- 2.9. Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz ahozko eta idatzizko testuak sortzea, euskarri desberdinak erabilia.
- 4.8. Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.